


“Noizbait, gizakia jakintsu egiten denean, txoriak kaiolan heziko ez direnean, gizarte ezainek kopeta goratzen dutenean hobeki ulertuko duten haurren bitartez, oldar libreen arauak sakon ikasi eta arranoen hazkunde legea ezagutuko denean, eguerdi beteak guztiontzat distiratzten duenean jakitea izanen da gorena, ikastea gozoena. Orduan, ikasketen azkenerako utzirik liburu latin eta greko handiak, oinazturak orro, itsasoak leinuru, izarrek irri egiten duten espirituaren haize luzeek betetako bakardade horiek, ikasgai samurren bitartez hausnarturik, maitarazirik, ulergarri eginen dira. Homerok, bere itsasbehera handian, liluratuta eramanen du eskolaumea; haurra ez da izanen Virgiliori lotutako uztarriko aberea; eta ez da berriz gertatuko, sasimaisu baten edo apaiz baten zartailuaren pean espirtu zaluak bihurtzea zigorlanen zaldi astuna. Herri guztiek dute edukiko, etxe sotil batean, eguteran, antzinako maisuaren orde, sobera beltza baita egunak argi egin diezaion, irakasle zuhur eta serioa, aitzinamenduaren abokatu, ezjakintasunaren mediku, eta ideiarenean apaiz; eta ilunpeetan itzaliko da betiko eskolaumea eta betiko jakin-ustea. Egunsentia kantari dator, ez marruka. Gure hurrek barre eginen digute esfera zuri honetan; eta beren artean pentsatuko dute zer nahi genuen irakastea txolarreari hontz basatiak. Orduan, espirtu gaztea eta behako gaztea argitasun jabal batean dira hegatuko maitagarri eginen den zientzia gorenera; orduan, gramatika ilun, lehor, itogarririk ez; maisuak, haurragana makurturiko apostolu eztiak, Jainkoak isuritako ortzia eta harmonia edanaraziko dio arima ttipiari kopa hondogabea. Orduan, dena izanen da egia, legea, dogmak, eskubideak, betebeharrak. Zuk, natura, itzal-letra handien alfabetoa, zure zutabe beltzen artean utziko duzu pasatzen errainu garbi bat, egunean baino egunean argiagoa!

“A propos d’Horace” Kontenplazioak. 1 liburua, 13

1836an hasitako poema honetan, aipatzen den zatia 1855ekoa delarik, Hugok hezkuntza berak ikusten duen moduan islatzen du, ikuspegi utopiko batekin, bai bere metodoetan eta baita bere helburuetan ere. Nahiz eta irakaskuntza arloan zorrotza izan, ez da mamu endemikoen preso. Berarentzat, hezkuntza publikoa haurren arteko berdintasunerako bidea eta aurrerapen sozialaren giltza da. Bere hitzaldian, Falloux Legea deitu zitzaiona (konfesiozko hezkuntzaren aldeko lege bat bozkatuarazi zuen ministro kontserbadorearen izena), eliza katolikotik at gelditzen zen hezkuntza publikorako sistema baten zirriborroa egin zuen.



“Jaunok, kontu bakoitzak dauka bere ideala. Niretzako, hona hemen hezkuntzaren kontu honen ideala: Hezkuntza doako eta derrigorrezkoa. Derrigorrezkoa lehen mailan bakarrik, doakoa maila guztietan. (Marmarrak eskuinean. – Txaloak ezkerrean.) Lehen hezkuntza derrigorrezkoa, haurren eskubidea da (Higidura), eta, ez zaitezela tronpatu, gurasoaren eskubidea baino sakratuagoa da, eta Estatuaren eskubidearekin egiten du bat.

Harira nator. Horra bada, nire ustean, kontuaren ideala: hezkuntza doako eta derrigorrezkoa esan berri dudana neurrian. Hezkuntza publiko handiosa, Estatuak emana eta arautua, herri-eskolatik hasi eta mailaz maila Collège de France-raino igoko dena, are gorago oraindik, Institut de France-raino. Zientziaren atea oro zabal inteligentzia orori. Non den baserri bat, non den espirtu bat, dagoela liburu bat. Auzorik ez eskolarik gabe, herririk ez kolegorik gabe, hiribururik ez fakultaterik gabe. Multzo handi bat, edo hobeto esanda, atelier intelektualen sare handi bat, lizeoak, gimnasioak, kolegioak, katedrak, bibliotekak, denak batera nazioaren gainean izarniaka, gaitasunak nonahi iratzarrit, bokazioak nonahi berotuz.

Hitz batean, giza-kontzientziaren mailadia Estatuaren eskuak tinko eutsia, masa sakonenean eta ilunenean gerizpea duela oinarri, eta argitasuna duela helmuga. Etenik ez: herriaren bihotza Frantziaren buruarekin harremanetan jarria. (Txalo luzeak.) Horra nola ulertzen dudana nik hezkuntza publiko nazionala.”

Irakaskuntza Askatasuna, 1850ko urtarrilaren 15ean Nazional-Batzarrean

HEZKUNTZA

1845ean, Urrikalgarriak lanaren lehen atala oraindik urrun zegoela, Hugok, Thiers bezalako politikari kontserbadoreen artean oso hedatuak zeuden teoriaren aurka zihoan hezkuntzaren ikuspegi bat jarri zuen bere Myriel Apezpikuaren ahotan. Thiers-entzat hezkuntza publikoaren garapena arriskutsua zen. “Liburu gaiztoen” irakurketa arriskutsua izan zitekeen ordena publikoarentzat. Hugoren ustetan, delitu txikien eta krimen handien iturri izaten den ezjakintasuna eta miseriaren arteko lotura, fede-dogma bat da. Testu hau apezpikuaren estiloan datatua eta adierazia badago ere, Hugo berak idatzia izan liteke bere bizitzako edozein momentutan.

Eta honakoa ere esan zuen:

“Ezjakinak direnei, irakatsieziaezue ahal duzuen gehiena; gizarteak dauka errua hezkuntza doan ez bada; berak sortzen duen gauaren erantzulea da. Espiritu hau ilunpeak hartua da, bekatua da bertan nagusi. Erruduna ez da bekatua egin duena, ilunpea egin duena baizik.”

Ikusten denez, gauzak epaitzeko modu bitxi eta berea zuen. Susmoa dut Ebanjelioan ikasi zuela.

“Urrikalgarriak”. Lehenengo atala, 1 liburua laugarren kapituluak “Lanak hitzekin harmonian”.